

2024RA LUZATUTAKO 2023KO
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

Programa: 136550 SUTEAK ITZALTZEKO ETA
SALBAMENDUKO ZERBITZUA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023
PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 11 BOMBEROS FORALES DE
ÁLAVA

Programa: 136550 SERVICIO DE EXTINCIÓN
DE INCENDIOS Y
SALVAMENTO

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren egiteko nagusia biziak eta ondasunak salbatzea da edozein ezbehar gertatuz gero. Beste zeregin batzuk dira laguntza teknikoa eta prebentzio jarduerak egitea (prebentzio taldeak, zabalkundekoak, prestakuntzakoak, etab.), baita Babes Zibilaren arloko beste batzuk ere.

Jarduketaren lurralde eremuak Arabako Lurralde Historiko osoa hartzen du, hiriburua izan ezik, Gasteiz.

Arabako Foru Suhiltzaileen erakundeak 6 parke ditu (Agurain, Kanpezu, Guardia, Langraiz Oka, Espejo eta Laudio), eta Lurraldeko biztanlegune guztiak artatzen ditu, 25 minutu baino gutxiagoko erantzun denboraz; dena delako lekura gertuen dagoen parkea iristen da lehenengo, edozein administratziotakoa dela ere.

Unitateak lanean izan dira lurraldean 24 orduz urteko 365 egunetan.

2024ko ekitaldian, erakunde autonomoaren zerbitzura dauden langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena negoziatzen eta egiten jarraitu zen, eta, sinatu arte, foru sektore publiko osoaren baldintza berberak aplikatzen dira, operatiboaren berezitasunei egokitutako beste batzuez gain. Horri dagokionez, enplegu baldintzei buruzko lehen akordio bat sortzea konplexua denez, eta erakunde autonomoaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da arlo horretan espezializatutako aholkularitza eta laguntza juridikoa izatea.

Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Sailak honako hauek lizitatu zituen: erakundearen parkeak garbitzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua berritzea, autoeskaileretarako ibilgailuak

I. MEMORIA

El Organismo Autónomo de Bomberas y Bomberos Forales de Álava tiene como cometido primordial el salvamento de vidas y bienes en caso de cualquier tipo de siniestro. Otros cometidos incluyen la realización de asistencias técnicas y de actividades preventivas (retenes de prevención, divulgación, formación, etc.), así como otras en el ámbito de la Protección Civil.

El ámbito territorial de actuación comprende todo el territorio Histórico de Álava a excepción de la capital, Vitoria-Gasteiz.

El organismo de Bomberas y Bomberos de Álava cuenta con 6 parques (Salvatierra, Campezo, Laguardia, Nanclares de la Oca, Espejo y Llodio), atiende todos los núcleos de población del Territorio con tiempos de respuesta inferiores a 25 minutos; llegando al lugar primeramente el parque más cercano independientemente de la administración a la que pertenezca.

Se han mantenido las unidades operativas a lo largo del territorio 24 horas durante los 365 días del año.

Durante el ejercicio 2024 se continuó con la negociación y elaboración del Convenio Regulador de las condiciones de trabajo del personal al servicio del Organismo Autónomo y hasta la firma del mismo, se vienen aplicando las mismas condiciones de todo el sector público foral, además de otras adaptadas a las particularidades del operativo. A este respecto, la complejidad de la creación de un primer acuerdo de condiciones de empleo y las circunstancias y características propias del OA hacen que se considere necesario que se cuente con un asesoramiento y asistencia jurídica especializada en esta materia.

Desde el Departamento de Recursos Humanos y Gestión Administrativa, se licitó la renovación del contrato de servicio de limpieza y mantenimiento de parques del Organismo, la revisión y

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

Programa: 136550 SUTEAK ITZALTZEKO ETA
SALBAMENDUKO ZERBITZUA

berrikustea eta mantentzea, eta haren administrazio jarduerari euskarria ematen dioten zenbait aplikazio informatiko mantentzeko kontratua.

Langileen kudeaketan mugarri garrantzitsu gisa, eta AKGAB-ren bidez, 2025eko ekitaldi honetan ezarriko den SAP RRHH tresna lizitatu eta kontratatu da.

Gainera, erakunde autonomoaren intraneta jarri da martxan, Zerbitzu Operatiboko langileek garatua.

Zerbitzua kudeatzeko behar izan diren funtzionamendu gastu guztiak kontratatu dira: horniketak, aseguruak, mantentze lanak, garbiketa lanak SISEUetan...

Laudioko SISEUa eraberritzeko jarduerak hasi dira. Horretarako, erakunde autonomoak egokitu egin behar izan zuen obrak dirauen bitartean SISEU horren jarduera egin ahal izateko modulu aurrefabrikatuak instalatzeko zorua, bai eta azpiegituren hornidura eta lursailaren hesitura ere. Era berean, langileak, ibilgailuak, tresnak eta bitartekoak modulu horietara lekualdatzeko koordinazio, plangintza eta jarduketa zehatzak egin dira, zerbitzuari une oro jarraitutasuna emanez. SISEUen behin-behineko lekualdatze horren euskarri izan diren moduluak eta karpak instalatzeko ahalegin handia egin behar izan da antolamenduaren ikuspegitik ez ezik, ekonomiaren ikuspegitik ere.

Gainera, Guardiako SISEUaren instalazioak handitu dira: aldagelak eraberritu dira eta hangarra handitu da, Osakidetza anbulantzia zerbitzuari espazio handiagoa emateko.

Espejoko SISEUan parkea ixteko eta hesitzeko obrak egin dira.

Inbertsio planarekin jarraitu behar denez, Laudioko SISEUan botilak kargatzeko presio handiko konpresore berri bat erosi da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 11 BOMBEROS FORALES DE
ÁLAVA

Programa: 136550 SERVICIO DE EXTINCIÓN
DE INCENDIOS Y
SALVAMENTO

mantenimiento de los vehículos autoescalera, así como el contrato de mantenimiento de varias aplicaciones informáticas que dan soporte a la actividad administrativa del mismo.

Como hito importante en la gestión del personal, y a través de CCASA, se ha licitado y contratado la herramienta SAP RRHH que va a ser implementada en este ejercicio 2025.

Además, se ha puesto en funcionamiento la intranet del Organismo Autónomo, desarrollada por personal del Servicio Operativo.

Se han contratado todos los gastos de funcionamiento precisos para la gestión del servicio: suministros, seguros, mantenimientos, limpieza en las UCEIS, etc.

Se ha comenzado con las actuaciones inherentes a la reforma de la UCEIS de LLodio. Para ello, el Organismo Autónomo tuvo que realizar la adecuación del firme en el que se ha realizado la instalación de los módulos prefabricados que darán soporte a la actividad de esta UCEIS mientras dure la obra, dotación de infraestructuras, así como el vallado del terreno. Del mismo modo, se ha realizado una labor de coordinación, planificación y actuaciones concretas destinadas al traslado del personal, vehículos, enseres y medios a estos módulos, dotando de continuidad al servicio en todo momento. La instalación de los módulos y las carpas que han dado soporte a este traslado provisional de la UCEIS ha supuesto un esfuerzo importante desde el punto de vista no sólo organizativo, sino también económico.

Se ha realizado, además, la ampliación de las instalaciones de la UCEIS de Laguardia, consistente en la reforma de vestuarios y de ampliación del hangar, para dotar de un espacio mayor al Servicio de ambulancias de Osakidetza.

En la UCEIS de Espejo se han realizado obras de cierre y vallado perimetral del parque.

Debido a la necesidad de continuar con el plan de inversiones, se ha comprado un nuevo compresor de alta para recarga de botellas en la UCEIS de Llodio.

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

Programa: 136550 SUTEAK ITZALTZEKO ETA
SALBAMENDUKO ZERBITZUA

2022ko baterako EPEko langileak praktiketako funtzionario gisa sartzearen ondorioz, beharrezkoak diren jarduketak egin dira NBEa eta langile berri horiei materiala eta ekipamendua emateko behar den gainerako materiala erosteko eta planifikatzeko.

Bestalde, ekitaldi honetan ere ahalegin handia egin da langileek beren betekizunak betetzeko behar dituzten janzkiak, NBEa eta esku hartzeetarako materiala izan ditzaten; zehazki, honako hauek erosi dira: aire zabalean egin beharreko lanetarako edo zirkulaziorako ikusgarritasun handiko uretako jakak eta diametro bereziko ehun mahukak.

Barne komunikazio operatiboen esparruan, 7 igorgailu eramangarri eta ibilgailu berrietako bat hornitzeko ibilgailuko igorgailu bat erosi dira.

2024an, ibilgailu hauek sartu dira zerbitzuan: 2 ibilgailu arin, autoponpa hornitzaile bat eta erreskate furgoneta bat.

Prestakuntzaren arloan, inbertsio lan handia egin da; hain zuzen, bi maniobra dorre edo egitura eraiki dira Espejoko eta Guardiako SISEUetan. Era berean, salgai arriskutsuei eta hiri eta baso suteei buruzko prestakuntza espezializatuko ikastaroak egin dira, urteko ohiko prestakuntzaz gain.

Dibulgazioaren atalean, neskentzako berariazko udalekuen kanpaina bat egin da, genero estereotipoak desagerrarazteko eta emakumeen ikusgaitasuna sustatzeko, suhiltzaileen sektorea oso maskulinizatuta baitago.

Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Planari dagokionez, hark gertaera larri, hondamendi eta zoritar publikoetan pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko mekanismoak eta esparru organiko-funtzionala zehazten ditu. Beraz, esan dezakegu ALHLP erreferentzia esparrua dela Arabako Lurralde Historikoaren barruan larrialdiak behar bezala koordinatzeko, eta bere lurralde eremuan gerta daitezkeen arrisku larriei,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 11 BOMBEROS FORALES DE
ÁLAVA

Programa: 136550 SERVICIO DE EXTINCIÓN
DE INCENDIOS Y
SALVAMENTO

Como consecuencia de la incorporación como funcionarios en prácticas de los efectivos pertenecientes de la OPE conjunta de 2022, se han realizado las actuaciones necesarias de planificación y compra de EPIS y demás material necesario para dotar de material y equipamiento a estos nuevos efectivos.

Por otra parte, se ha continuado con un esfuerzo importante para dotar al personal del material de intervención, vestuario y EPIS necesario para el ejercicio de sus cometidos, materializándose en este ejercicio, en la compra de chaquetas de agua de alta visibilidad para tráfico o trabajos a desarrollar a la intemperie, así como de nuevas mangueras textiles de diámetro especial.

En el ámbito de las comunicaciones internas operativas, se han comprado 7 emisoras portátiles y una de vehículo para equipar uno de los vehículos nuevos.

Durante el año 2024, han entrado en servicio los siguientes vehículos: 2 vehículos ligeros, una autobomba nodriza y una furgoneta de rescate.

En el área de formación, se ha llevado a cabo una importante labor inversora materializada en la construcción de dos torres de maniobra o castillete en la UCEIS de Espejo y Laguardia. Así mismo, se han llevado a cabo cursos de formación especializada en materia de mercancías peligrosas, incendios urbanos y forestales, además de la formación ordinaria anual.

En el apartado de divulgación, se ha llevado a cabo una campaña de Udalekus específica para niñas con el objeto de eliminar estereotipos de género y fomentar la visibilidad de las mujeres en un sector tan masculinizado con el de bomberas y bomberos.

En cuanto al Plan de Emergencias del Territorio Histórico de Álava, éste define el marco orgánico-funcional y los mecanismos de movilización de medios y recursos necesarios, para la protección de personas y bienes en caso de incidente grave, catástrofe, o calamidad pública. Podemos indicar por tanto, que el PETHA constituye el marco referencial para una adecuada coordinación de las emergencias dentro del Territorio Histórico de Álava, cuyo objeto es hacer frente a las situaciones

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

Programa: 136550 SUTEAK ITZALTZEKO ETA
SALBAMENDUKO ZERBITZUA

hondamendiei edo zoritar publikoei aurre egiteko eta dagokion antolamendu esparrua ezartzeko xedea duela.

Aipagarria da gure Su Itzaltze eta Salbamenduko Zerbitzuaren jarduerak, Dana denboralearen ondoren Valentziako herritarrei laguntzeko eta egoera arintzeko beste administrazio batzuekin koordinatuta egindako jarduketetan. Giza baliabideak eta baliabide materialak hedatzeko ahalegin handia egin zen. Era berean, ura ateratzeko motoponpa berriak eta osagarriak erosi dira.

Beste administrazio batzuekin batera egindako jarduketei dagokienez, 2024an, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoakoarekin egindako akordio bat gauzatu zen, hain zuzen baso suteak kudeatzeko helikoptero bat martxan jartzekoa. Ekitaldi horretako uda izan zen gure lurraldeak zerbitzu hori izan zuen lehen urtea, eta Langraizko SISEUan izan zuen basea. Hitzarmen horren ondorioz, Baso Brigadak erabiltzen duen Legutioko basea egokitzeko lanak egin ditu erakundeak.

Beste administrazio batzuekiko lankidetzak hitzarmenak.

Bere eginkizunak betetzeko, SEAk lankidetzak hitzarmenak ditu lurralde periferikoekin, pertsonen arriskua eragiten dien edozein larrialdiren aurrean erantzun azkarra bermatzeko, larrialdia probintzia barruan edozein lekutan dagoela ere, eta, horrela, erantzunetan isokrono aldekoenak bermatzeko.

Inguruko lurraldeekin eta beste erakunde eta organizazio interesgarri batzuekin (UNESPA, REE...) egindako hitzarmenak berritzea eta eguneratzea ere nabarmendu beharreko beste faktore bat da.

2024ko ekitaldian, beste lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen Gasteizko Udalarekin, eta erakundeak 400.000,00 euroko ekarpena egin zuen.

Era berean, hitzarmenak eutsi zitzaizkien Logroño

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 11 BOMBEROS FORALES DE
ÁLAVA

Programa: 136550 SERVICIO DE EXTINCIÓN
DE INCENDIOS Y
SALVAMENTO

de grave riesgo, catástrofes, o calamidades públicas, que pudieran presentarse en su ámbito territorial, y establecer el marco organizativo correspondiente.

Es reseñable la actuación de nuestro Servicio de Prevención y Extinción de Incendios en las actuaciones realizadas de manera coordinada con otras Administraciones para paliar y socorrer al pueblo de Valencia tras la Dana. Se realizó un importante esfuerzo de despliegue de medios humanos y materiales. Así mismo, se han adquirido nuevas motobombas de achique agua y accesorios.

En cuanto a actuaciones conjuntas con otras Administraciones, en 2024 se materializó un acuerdo con Gobierno Vasco, la Diputación de Vizcaya y la de Guipúzcoa para la puesta en servicio de un helicóptero para la gestión de incendios forestales, siendo el verano de este ejercicio, el primer año en el que nuestro Territorio contó con este servicio con base en la UCEIS de Nancles. Derivado de este Convenio, el Organismo ha realizado las obras de acondicionamiento de la base utilizada por la Brigada Forestal en Legutiano.

Convenios de Colaboración con otras Administraciones.

Para la ejecución de sus cometidos, el OAB dispone de convenios de colaboración con los territorios periféricos, al objeto de garantizar una pronta respuesta ante cualquier emergencia con riesgo para las personas, indistintamente de la localización territorial de esta dentro de la provincia, garantizando así unas isócronas de respuesta adecuadas.

La renovación y actualización de convenios con los territorios periféricos, así como con otros organismos y organizaciones de interés (UNESPA, REE...), es otro de los factores a poner de manifiesto.

Durante el ejercicio 2024 se firmó un nuevo convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, aportándose por parte del Organismo 400.000,00 euros al mismo.

De la misma manera, se mantuvieron los Convenios

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

Programa: 136550 SUTEAK ITZALTZEKO ETA
SALBAMENDUKO ZERBITZUA

eta Miranda Ebroko udalekin eta Errioxako Autonomia Erkidegoarekin, lurralde horien mugakide diren Arabako eremuetan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua emateko.

Bestalde, zerbitzua ematen jarraitu da Trebiñuko enklabean eta Burgosko eremu mugakideetan.

2024ko ekitaldian lankidetzan jarraitu da Arabako Mendialdeko zein Gaubeako babes zibileko boluntario taldeekin.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Lehenengo helburua izan zen SISEU zabaltzea operatibo egoteko 24 orduz urteko 365 egunetan. 2024ko ekitaldian egitura horri eutsi zaio, eta ahalegin handia egin da baliabide guztiak operatibo izateko.

Kontuan hartuta ezarritako helburua zela Arabako lurralde osoan su itzaltze, prebentzio eta salbamendu zerbitzua ematea, helburua oso ondo betetzat jotzen da.

Zerbitzua emango dela bermatzeko, beste administrazio eta erakunde mugakide batzuekiko lankidetzat hitzarmenei eutsi eta sinatu dira.

Arkautik kudeatzen duen txanda irekiko EPEari dagokionez (bete-betea doa aurrera), suhiltzaileekin eta larrialdietako beste zerbitzu batzuekin lankidetzan lan egingo duten pertsonak prestatzea da asmoa.

Talde operatibo osoko langileei prestakuntza eman zaie, eta simulakroetan eta ariketetan parte hartu da enpresekin eta erakundeekin.

Laneko segurtasunaren arloan, normaltasunez garatu dira langileak prestatzeko eta gaitzeko prozedurak, eta jarduketara prozedura espezifiko bat ere egin da, amiantoaren egon daitekeen jarduketara operatiboetarako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 11 BOMBEROS FORALES DE
ÁLAVA

Programa: 136550 SERVICIO DE EXTINCIÓN
DE INCENDIOS Y
SALVAMENTO

con los Ayuntamientos de Logroño y Miranda de Ebro, y con la Comunidad Autónoma de La Rioja para la prestación del Servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento en las áreas alavesas limítrofes con sus territorios.

Por otro lado, se ha continuado con la prestación de servicio en el enclave de Treviño y zonas limítrofes de Burgos.

Durante el ejercicio 2024 se ha seguido colaborando con las agrupaciones de voluntarios de protección civil de Montaña Alavesa y Valdegovía.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El primer objetivo consistía en la apertura de las UCEIS operativas, 24 horas los 365 días del año. Durante el ejercicio 2024 se ha mantenido esta estructura, realizando esfuerzos importantes para mantener todos los recursos operativos.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es la prestación del Servicio de Extinción y Prevención de Incendios y Salvamento en todo el territorio de Álava, el cumplimiento del objetivo se considera como muy satisfactorio.

Para garantizar la prestación del servicio, se han mantenido y suscrito Convenios de colaboración con otras entidades y administraciones limítrofes.

En relación a la OPE en turno libre, gestionada por Arkaut, sigue en pleno desarrollo, la idea es formar a personas que van a desarrollar sus tareas en colaboración con otros cuerpos de bomberos y otros servicios de emergencias.

Se han realizado formaciones a personal de todo el operativo y se ha participado en simulacros y ejercicios con empresas y organizaciones.

En materia de seguridad en el trabajo, se han desarrollado con normalidad los procedimientos de formación y capacitación del personal, así como el desarrollo de un procedimiento de actuación específico para las actuaciones operativas con posible presencia de amianto.